

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

## HITZARMEN BIDEZKO DIRU LAGUNTZAK: KRONIKA

Dobera Euskara Elkarteak Udalarekin hitzarmena berritu zuen, 2020ko abenduaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordioan jasotzen den moduan, eta hitzarmenaren arabera, Dobera Euskara elkarteak **Kronika egitasmoa bideratzeko** 2023rako egitasmoa eta aurrekontuak aurkeztu ditu.

Aurkeztutako aurrekontuan, Udalaren aldetik 65.000,- euroko diru laguntza jasotzea aurreikusi dute.

Euskara delegatuak ezagutzera eman du 2023ko udal aurrekontuetan 65.000 euro izendatuta daudela Dobera Euskara Elkartearen **Kronika** egitasmorako, eta diru kopuru hori bideratzea proposatu du.

Hitzarmenean jasota dagoenaren arabera honela egingo da ordainketa:

Ordainketa era:

|                  |            |
|------------------|------------|
| 2023ko martxoan  | 32.500 €   |
| 2023ko urrian    | 16.250 €   |
| 2024ko otsailean | Likidazioa |

Kontuan hartu da Herritarrenzako zerbitzuen batzordeak 2023ko otsailaren 23ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

.Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

.

Onartzea **Kronika** egitasmoa bideratzeko 2023ko udal aurrekontuetan jasota dagoen diru laguntza bideratzea: 65.000 €. AD-2023-71

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2023. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko diru laguntzak".

.Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

.

.Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2022ko martxoaren 2an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

.Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUac7f74af-a756-4152-8353-94fda7deb637**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**